

[Eusk/Cast] JARDUN Koordinadorak 2021eko Aberri eguna antolatu du Gernikan

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 04/04/2021

Iniziatiba hauosatzen duten antolakunde ezberdinak Gernikan manifestatu dira “Aberri gorria, biharko Euskal Herria”; “Independentzia eta Sozialismoa”

[Euskara]

Iniziatiba hauosatzen duten antolakunde ezberdinak Gernikan manifestatu dira “Aberri gorria, biharko Euskal Herria”; “Independentzia eta Sozialismoa”, “Euskal Herri langilea Aurrera”; “Presoak Kalera Amnistia osoa” lelopetan.

Igande honetan, apirilaren 4an, Jardunek Aberri Egunerako deialdia lehenengo aldiz zabalduz, 600 pertsona baino gehiago batu ditu Euskal Herri Langilearen nazio auzia aldarrikatzeko helburuarekin. Zanpantzarrak aitzina, ekimena Merkurio Plazatik atera den manifestazio batekin hasi da eta Auditorioan irakurri diren Euskal Herri Langile Klasearen inguruko hiru diskurtsoekin bukatu da: lehenengoa, Jardun koordinadora sortzen ari den ekimen feministaren aurkezpena izan da, bigarrena, Jarki antolakunde iraultzailearen diskurtsoa eta azkenik, Koordinadora beraren diskurtso politikoa.

Manifestazioa ezustekorik gabe igaro da. Hala ere, ekimenarekin hasi baino lehen, Udaltzaingoak 7 pertsona identifikatu ditu, goizeko lehen orduetatik egon den presentzia poliziala azpimarratzekoa izanik.

Bestalde, Jardun koordinadorak egun Euskal Herriak estatu espainolarengatik zein frantsesarengatik jasaten jarraitzen duen zapalkuntza salatu du, baita independentzia eta sozialismoa aldarrikatu ere.

Hau honela izanik, Euskal Herri Langilearen askapena lortzeko funtsezkoa den antolatzeko beharra azpimarratu du eta horretarako deia luzatu die bertan zeuden pertsona guztiei. Bukatzeko Eusko Gudariak eta Internazionala abestu dira.

[Castellano]

Las diferentes organizaciones que componen esta iniciativa, se han manifestado por las calles de la localidad vizcaína bajo las consignas: “Aberri gorria, biharko Euskal Herria”; “Independentzia eta Sozialismoa”, “Euskal Herri langilea Aurrera”; “Presoak Kalera Amnistia osoa”, entre otras.

Este domingo, 4 de abril, y celebrando Jardun por primera vez el Aberri Eguna, más de 600 personas han recorrido las calles de Gernika para reivindicar la causa nacional del Pueblo Trabajador Vasco. El evento se ha centrado en realizar una manifestación desde la plaza Mercurio custodiados por los 'Zanpantzar', finalizando el evento con un acto en el Auditorio donde se han leído tres discursos diferentes sobre las luchas reivindicativas de la clase trabajadora vasca: el primero sobre la iniciativa feminista que está formando Jardun, el segundo sobre la organización revolucionaria Jarki y un último discurso político de la propia coordinadora.

La manifestación ha transcurrido sin incidencias, aunque en momentos previos a ella se han llevado a cabo 7 identificaciones por parte de la policía municipal. La presencia policial en horas anteriores ha sido constante. Por su parte, se ha querido denunciar la opresión que a día de hoy sigue padeciendo Euskal Herria por parte de los Estados español y francés, donde desde la coordinadora Jardun siguen reclamando la independencia y el socialismo.

Así, también han querido lanzar un mensaje sobre la necesidad de organizarse para conseguir los objetivos para la liberación del pueblo trabajador vasco. El acto ha terminado con el Eusko Gudariak y la internacional.

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-jardun-koordinadorak-2021eko>